

2. koadernoia: Programaren garapena



[Peru]

Sendotze Instituzionaleko eta Herritarren Partaidetzako Esperientzia



Salcantay mendia (6.271 m.) (Zabalketa)

Aurkezpena

Zabalketak eta Peruko Caritasen Hegoaldeko Sareak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren baterako finantzaketarekin, “Garapen bidezkoa eta iraunkorra Andeatako komunitateetan” (Peru) programa ezarri zuten 2013 eta 2015 artean.

Programa horren esparruan, heziketa-lan bat ere egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko eta Peruko goi-mailako ikastetxeetan “Kasuaren metodoan” oinarrituta, programa bera kasu errealtzat hartuta.

2. koaderno hau metodologia honen arabera ikasteko prestatu ziren hezkuntza-baliabideen multzokoa da. Koadernoan dibulgazio-tonuan, laburtuta eta nabarmenduta aurkezten dira garatutako lan-estrategiak, erdietsitako lorpenak eta garapenerako lankidetzak hori egikaritzean aurkitutako zailtasunak.

Sarrera

Peruko Andeen oinetan, itsas mailatik 2.500 eta 4.000 metro artean Acopíako eta San Pedro Cachorako (aurrerantzean forma laburtua erabiliko dugu: Cachora) barrutietako familia nekazariak egunero egiten diete aurre euren komunitatearen garapeneraren erronkari.

Peruko Caritasen Hegoaldeko Sarea eta Zabalketa Elkartea, egoitza Getxon duena, 2000. urteaz geroztik elkarrekin ari dira lanean Andeatako zona horretan hainbat proiektu garatzen.

Programa honetarako bi barrutietako honako zortzi landa-komunitate hauek hautatu dira eta horiekin lan egin da:

Barrutia	Biztanleak	Hedadura (Hektareak)	Komunitatea
Acopía	2.557 (% 52 emakumeak % 48 gizonak)	9	Acopía
			Huayrachapi
			Miskiuno
			Santo Domingo
			Tactabamba
Cachora	3.531 (% 51 gizonezkoak % 49 emakumeak)	11	Ttasta Poyoncco
			Asil
			Pantipata

Iturria: INEI, 2007ko Biztanle Errolda

Tokiko gobernuekin eta bi barrutietako landa-komunitateekin batera egindako aurretiko identifikazio-lan batean oinarrituta, zona hartan **garapena lortzeko arazo nagusia lurraldeko lau eragile nagusiek egiten zuten kudeaketa txarra eta koordinazioz gabea zela ondorioztatu zen**: tokiko gobernuak; landa-komunitateak;



Mapa: Acopía eta Cachorako distrituen kokapena

teak; ekoizle-erakundeak; eta bi barrutietako gizon eta emakume helduak.

Ahulezia hori arintzeko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren baterako finantzaketarekin, hiru urteko (2013-2015) programa bat jarri zen martxan honako helburu nagusi honekin: lurraldeko eragile horiek, tokiko gobernuaren lidergoarekin, itunduta eta eraginkortasunez kudeatzea toki-garapeneko prozesu bat, ikuspegi integral, bidezko eta iraunkor batetik.

Caritasen hegoaldeko Sareak eta Zabalketak hautatutako lan-estrategia lurraldeko lau eragile nagusi ho-



Zabalketa eta Peruko Caritas Red Sur arteko lan bilera (Zabalketa)

riekin aldi berean lan egitea izan zen, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

- Antolaketa-egitura bakoitzean zuzenean lan egiteko aukera ematen du eta baita haien arteko erlazioetan eragiteko ere, sinergiak sortzeko aukera indartuz.
- Nahitaezkoa da herritarrek parte hartzea benetako tokiko boterea lortzeko.
- Eragile horiek parte hartzen dute toki-garapenaren aldeko hainbat ekimenetan eta indartzeko eta elkarren artean antolatzeko laguntza behar dutela ikusi da.
- Inpaktu handiagoa lortzen da genero-berdintasuna lortzeko orduan, hainbat eragilerekin eta erabakiak hartzen diren eta kezkak sortzen diren hainbat lekutan lan egiteko aukera ematen duelako.

Horretarako, honako lau osagai hauetan ardazu zen egin beharreko lana:

1. Acopía eta Cachorako toki-gobernuen kudeaketa-ahalmenak sendotzea, toki-garapena modu

parte-hartzaileagoan eta itunduagoan sustatzeko helburuarekin.

2. Landa-komunitateetako agintari eta buruzagien ahalmenak sendotzea, euren kudeaketa-mekanismoak hobetu ditzaten, berdintasun-, partaidetza- eta kontzertazio-irizpideak txertatuta.
3. Ekoizle-erakundeek ahalmenak sendotzea, tokiko garapen ekonomiko iraunkorrerako proposamenak modu itunduan kudea ditzaten.
4. Gizon eta emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzea, euren eskubideak askatasunez erabil ditzaten eta euren komunitatearen eta barrutiaren garapenaren kudeaketan konprometitu daitezen.

Programaren hasiera

Bere garapen ona bermatzera zuzendutako bi ekintza estrategikorekin hasi zen programa.

Lehen jarduera programa martxan jartzeko lantegi bat egitea izan zen, Caritaseko bi bulegoetako lantaldeari zuzendutakoa: Cusco eta Apurimac-eko departamentuetan kokatutakoak eta Peruko Caritasen Hegoaldeko Sarearen Partzuergoan daudenak. Lantegiaren helburua programaren estrategia integrala sozializatzea, irizpide eta prozedura administratiboak bateratzea eta sareko lanaren koordinazioa planifikatzea zen. Lantegi horretan zuzendaritza-taldeetako nahiz talde teknikoko pertsonak hartu zuten parte, eta baita administrazio- eta kontabilitate-sailekoek ere.

Bigarren ekintza estrategikoa bi barrutietan **programaren aurkezpen ofiziala egitea** izan zen. Aurkezpenean izan ziren agintari politikoak, funtzionarioak, komunitateko zuzendariak eta oinarriko erakunde sozialetako buruzagiak. Pertsona horiei guztiei programa aurkeztu zitzaizen eta haren laburpena eman zitzaizen.

Aurkezpen horietan egiaztatu ahal izan zen gizarte zibil antolatua konpromiso eta motibazio sendoak zituela programa martxan jartzeko



Bilkura baten akta egiten (Old Port Films)

Bi ekintza horien ondoren, lanean hasi ziren identifikatutako lau osagaietan, honako jarduera hauek eginez eta honako emaitza hauek lortuz:

1. osagaia

Toki-gobernuen kudeaketa-ahalmenak sendotzea

Lehen osagai horren xedea gobernuek kudeaketa-ahalmen handiagoak lortzea da, toki-garapena modu parte-hartzaile eta itunduan sustatu ahal izateko.

Lana hainbat ildotan garatu zen, eta honako hau izan zen aurrenekoa: **toki-gobernuei aholku ematea eta laguntzea barneko kudeaketa-tresnak hobetzeko, egiteko eta inplementatzeko**, hain zuzen ere Antolamendu eta Funtzioen Erregelamendua (AFE) eta Antolamendu eta Funtzioen Eskuliburua (AFEL). Horretarako, lantegien bitartez eta parte-hartze handiari esker, Acopiako toki-gobernuak tresna horietan genero-ikuspegia txertatzea lortu da, orain emakumeen gaitzea eta parte-

hartzea ahalbidetzen duelarik, eta indarkeriaren biktimaren diren emakumeentzako arreta-zerbitzua sortu da.

Cachoraren kasuan, tresna berriek berdintasun-irizpideekin xedatu dituzte funtzionarioen rolak eta funtzioak, eta argi eta garbi zehaztu dituzte koordinazio-prozedurak eta -mailak.

Eta toki-gobernuekin garatutako bigarren lan-ildoan **agintari eta funtzionarioek euren funtzioak modu eraginkorragoan betetzeko gaitasunak hartzea eta hobetzea izan zen**. Horretarako, bi barrutietan gauzatu zen Toki Garapenerako Kudeaketa Parte-hartzaile eta Itunduaren Diplomatura. Agintari eta funtzionarioen artean 12 buruzagik hartu zuten parte. Diplomatura horrekin langileek euren lan-arloetan funtzioak hobeto betetzea lortu da. Gauzatutako prozedura administratiboen eta eskaintako zerbitzuen hobekuntzan islatu da hori, batak bat garapen sozialeko eta garapen ekonomikoko arloetan. Beste hobekuntza batzuen artean, adibide gisa aipa genitzake, garapen ekonomikoko funtzionarioen

erantzukizuna dela orain nekazaritza- eta abeltzaintza-arloetako ekintzak eta ekintzailatza ekonomikoa sustatzea, eta Gobernuak bere organigrama eta jendearen arretarako antolamendu-egitura hobetu izana.

Toki-gobernuekin garatutako hirugarren lan-ildoan izan zen **gizarte zibilaren parte hartzeko guneak eta kontzertazio-mekanismoak indartzea**. Horretarako, pasantiak egin ziren eskualdeko barruti-kudeaketari buruzko esperientzia arrakastatsuak ezagutzeko.

Pasantia horiek baliabide eraginkorrenetakotzat jo zituzten agintari eta funtzionarioek programak inplementatutako prestakuntza-estrategiaren barruan. Elkarren artean elkarriketa eta koordinazio gehiago ahalbidetzera bultzatu ditu funtzionarioak. Pertsona horiek Anta-Cusco probintziako Cachimayo barrutiko Barruti Garapeneko Kontseiluaren toki-kudeaketako eta inplementazioko esperientzia ezagutu ahal izan zuten. Barrutiak zortzi urte baino gehiago daramatza



Acopíako herriguneko kalea (Zabalketa)



kontzertazio-eredu hori inplementatzen lurralde-kudeaketarako eta toki-garapenerako.

Halaber, Acopía eta Cachorako toki-gobernuetako 16 agintarik hartu zuten parte Peruko Hegoaldeko Landa Eremuetako Agintarien Kudeaketa Ahalmenak Sendotzeko topaketetan, Liman astebetetz egin zirenetan. Pertsona horiek Toki Gobernuen Kudeaketaren Hasapenak izeneko gaitze-programa batean parte hartu zuten goizetan eta arratsaldetan, berriz, toki-kudeaketako eta politika publikoak inplementatzeko esperientziak bisitatu zituzten lau erakundetan: Villa el Salvador barrutiko Alkatetza, Errepublikako Kongresua, Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE) eta Peruko Caritas. Udalen kudeaketa-esperientziak eta Peruko hegoaldeko mendietako landa-eremuetako lurralde-kudeaketako esperientziak partekatzea zen helburua.

Halaber, **Barruti Garapeneko Planak modu parte-har-tzailean eguneratu eta elaboratu ziren.** Acopían emaitza ona lortu zen, gizarte-erakundeek, ekoizpen-erakundeek, emakume-erakundeek eta haurrek parte hartu baitzuten. Cachoran, programa bukatzeko unean, bederatzi agintari hautetsiek eguneratua zuten

Barruti Garapeneko Plana eta abian jartzeko prozesuan zeuden. Barruti horretan aktiboki parte hartu dute lurraldeko eragileek ere, lurraldeko arazoak identifikatuz eta toki-garapeneko proiektuak 2021erako ikuspegiarekin lehenetsiz.

Puntu horretan, gainera, **laneko mahai teknikoen** eraketa sustatu eta indartu zen, kontzertazio-eremu oso baliagarri eta interesgarri gisa. Acopían martxan utzi ziren garapen sozial eta ekonomikoko mahaiak eta Cachoran, bestalde, agintari hautetsi berriak herritarrekin ituntzeko eta elkarriketatzeko eremuak ari ziren sustatzen, eta baita garapen ekonomiko eta sozialeko ardatz estrategikoetan ere.

Eta hirugarren lerro horretan toki-gobernuekin martxan jarri zen azken ekintza informazio-, gardentasun- eta ebaluazio-sistema bat diseinatzea eta ezartzea izan zen, hain zuzen ere, Acopíako barrutian Alkatezaren komunikazio-plan bat prestatzea eta garatzea, funtzionarioek eremu erradialetan parte hartzea eta horma-albizkariak egitea.

Toki-gobernuekin batera egindako lan horretan oinarrituta, honako hiru emaitza hauek lortu ziren:



Komunitate bilera (Old Port Films)

- Toki-gobernuek egitura organiko egokiagoarekin, funtzionalagoarekin eta eraginkorragoarekin egi-ten dute lan.
- Agintariak eta funtzionarioak gaitasun handiagoak dituzte euren funtzioak modu eraginkorragoan erabiltzeko.
- Toki-gobernuek kontzertazio-guneak eta -mekanismoak indartu eta sustatzen dituzte gizarte zibilarekin toki-garapenaren kudeaketarako.

2. osagaia

Landa-komunitateen kudeaketa-ahalmenak sendotzea

Osagai honen helburua landa-komunitateek euren kudeaketa-mekanismoak hobetzea zen, berdintasun-, partaidetza- eta kontzertazio-irizpideak txertatuta eta, horretarako, honako ekintza hauek jarri dira martxan:

Landa-komunitateei lagundu egin zitzaizen **euren estatutuak eta barne-araudiak egiten eta implementatzen**. Hala, tresna horiek berrikusi eta hobetu ziren hainbat alderditan, esaterako, emakumeek hitzarekin eta bo- toarekin parte hartzea eta komunitatean karguak har- tzeke aukera izatea; oinarriko erakundeak aitortzea eta haiekin koordinatzea, gazte-erakundeak barne; eta baliabide naturalen kudeaketa, besteak beste.

Bestalde, komunitate-erakundeetako agintariak eta ordezkariak **komunitate-antolaketa eta kudeaketa gaitzeko lantegietan** esku hartu zuten, 12 modulutan antolatuta. Lantegi horietan hainbat arlotan prestatu ahal izan dira: partaidetza, demokrazia, kudeaketa- rako trebetasunak, etab. Guztira 584 buruzagik hartu dute parte: 313 emakume (% 43) eta 422 gizonezko (% 57), eta lortutako hobekuntzen artean honako hauek nabarmentzen ditugu: parte-hartze handiagoa eta hobia komunitateko batzarretan; kohesio han- diagoa zuzendaritza-batzordeetako kideen artean;



Lan bilera Acopía distrituko Miskiunoko nekazari komunitatean (Zabalketa)

emakumeen eta gazteen presentzia eta parte-hartze handiagoa; eta antolaketa eta arintasun handiagoa batzarretan. Udalarekiko harremanetan parte-hartze handiagoa nabaritzen da eta udal-kudeaketa zaintzeko gaitasunen hobekuntza, gardentasun handiagoa eskatuz argudio sendoeekin eta informazioa maneiatuz.

Gaitzearekin batera, **komunitate-zuzendaritzari lagundu zitzaion**, beste gauza batzuen artean, batzarrak antolatzen, erregistro publikoetan izapideak egiten, azokak antolatzen eta erosketak kudeatzen.

Garatutako beste lan-ildo bat **landa-komunitateei herri-garapeneko planak eguneratzen eta egiten laguntzea eta erraztea izan zen**. Plan horiek garapen-ikuspegia jasotzen dute, eta baita ekintza-lerroak, helburuak eta gauzatu beharreko jakineko proiektuak ere. Programa horrekin, plan horiek egiteko orduan jende gehiagok parte hartzea lortu zen, garapen-ikuspegi horren eraikuntza kolektiboa ahalbidetuz eta, gainera, emakumeen parte-hartzea erraztu zen, bertaratutako pertsonen % 47 izatea lortuz, emakumeen kezka diren gaiak kontuan hartuta eta jasota.

Programaren bitartez, **komunitateko zuzendaritza-batzordeei lagundu zitzaion Barruti Garapeneko Kontseiluan parte hartzea hobetzeko eta sustatzeko**, bai Acopíakoan eta bai Cachorakoan. Kontseilu horietan, batez beste, 60 agintarik eta buruzagik hartzen dute parte barruti bakoitzetik, eta horietan identifikatu eta erabakitzen dira sustatu nahi diren garapen-ekintza nagusiak, komunitatean eta barrutian itundutako garapen-planen arabera. Programari esker, landa-komunitateek kontzertazio-guneetan hainbat proposamen aurkeztea lortu zen, eta horietako batzuk aintzat hartu eta hurrengo urteko aurrekontuetan sartu ziren.

Landa-komunitateekin garatutako ekintzek honako hiru emaitza hauek ahalbidetu dituzte:

- Landa-komunitateek antolaketa-egitura berria dute eta kudeaketa-eredu bidezkoagoa eta funtzionalagoa.
- Komunitateetako zuzendaritza-batzordeek ahalmen handiagoak dituzte euren funtzioak hobeto betetzeko.



Nekazari familia artaldearekin (Old Port Films)

- Landa-komunitateek parte hartzeko eta toki-gobernuekin eta kanpoko erakundeekin ituntzeko ahalmenak sendotzen dituzte.

3. osagaia

Ekoizpen-erakundeek kudeaketa-ahalmenak sendotzea

Programako hirugarren osagai honekin, ekoizle-erakundeek euren proposamenak itunduta kudeatu ahal izatea eta proposamen horiei esker tokiko garapen ekonomiko iraunkorra ahalbidetzea da lortu nahi den helburua.

Horretarako, bi barrutietako 13 erakunderekin lan egin zen, eta horietatik lau programaren ondorioz sortu ziren. **Gaitzeko 20 lantegi** egin ziren, 160 lagun parte-hartzearekin: 82 emakume (% 51) eta 78 gizon (% 49). Lantegi horietan tresna estrategikoak maneiatzen irakatsi zuten, eta baita elkartegintzari buruzko kontuak ere, beste gai batzuen artean. Horren ondorioz, erakundeek urteko lan-planak dituzte

orain eta modu bateratuan antolatzen dituzte produktuak saltzeko azokak.

Erakunde horiei **kudeaketa-tresnak** (akta-liburua, kuxta-liburua, errolda-liburua eta estatutuak) **egunertzen** ere lagundu zitzaion. Erakundeek interes handia erakutsi zuten prestakuntza-prozesu horretan, hainbat funts lortzeko eta distrituan erabakiak hartzeko zerbait gunetan hitzarekin eta botoarekin parte hartzeko aukera emango dielako.

Ekoizpenari dagokionez, **gaitze teknikoko 24 lantegi** egin ziren, 394 lagun parte-hartzearekin: 233 emakume (% 59) eta 161 gizon (% 41). Beste batzuen artean, honako gai hauek jorratu ziren: elikadura eta nutrizioa, animalien osasunbidea, gaixotasunen kontrola, instalazio egokiak eta ekoizpen-erregistroa. Horren ondorioz, honako hobekuntza hauek identifikatu dira: biosegurtasuneko arauak betetzen dira, sendagaiak ondo erabiltzen dira eta janari-anoak hobeto dosifikatzen dira.

Erakundeek gaitze tekniko hori **norbanakoen 220 lantze teknikekin** sendotu zen, lurzoruen analisisan,

lurren prestaketan, hazi-ereintzan, izurriteen kontrolean eta beste hainbat gaitan sakonduz.

Maila tekniko horretan ere babes eta prestakuntza espezifikoagoa eman zen lau esparrutan: horietako bat **aspertiozko ureztapen-sistemak jartzea** izan zen. 180 familia-unitatetan jarri ziren eta goi-ibarren kudeaketa iraunkorrerako eta babeserako prestakuntza ere jaso zuten.

Bigarren esku-hartze tekniko espezifikoa **larre hobetuen hazkundearekin** zuen lotura. Horretarako, azindari nutrizio-kalitate handiagoa ematen dion, izozteei hobeto aurre egiten dien eta garaiera horietan ohikoa den barietate bat hautatu zen. Horretarako, 16 lantegi egin ziren 333 lagunaren parte-hartzearekin (% 51 emakumeak eta % 49 gizonezkoak), eta barietate horrekin 44 hektarea landatu ziren 340 familiaren lurretan.

Hirugarren esku-hartzea **abereentzako azpiegiturak eraikitzea izan zen**: akuriak, behiak, etab. Aurretik fa-

milia onuradunak identifikatu ziren eta 100 bat familia-unitatetan eraiki ziren azpiegitura horiek.

Eskainitako azken laguntza teknikoak lotura zuen **akuri-hazkuntzarekin**, hain zuzen ere, animalia-aren maneio teknikoarekin, gaixotasunen kontrolarekin eta bere kudeaketa teknifikatuarekin, eta elkargintza-arloko prestakuntzarekin eta akuri-haragiaren merkataritza-antolamenduarekin osatu zen, ekonomia-jarduera hori potentzial handia duela erakusten ari baita bi barrutietako toki-ekonomia dinamizatzeko.

Ekoizpen-erakundeekin egindako lanak honako emaitza hauek lortzeko aukera eman zuten:

- Ekoizpen-erakundeek kudeaketa-ahalmen handiagoak dituzte.
- Ekoizpen-familiek kudeaketa tekniko-produktiboko ahalmenak sendotu dituzte.

4. osagaia

Gizon eta emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzea euren komunitatearen eta barrutiaren garapenerako kudeaketan.

Osagai honen helburua gizon eta emakumeak euren komunitatearen eta barrutiaren garapenerako konprometitzea da.

Horretarako, Giza eta Herritarren Eskubideen arloan sensibilizatzeko eta hedatzeko kanpainak egin ziren bi barrutietan: irratiko programak, emakumeen elkarretaratzeko eta kalejirak batik bat. Kanpaina horien bitartez emakumeek jasaten duten diskriminazioa salatu ahal izan zen eta horrek eragiten dituen ondorioak eta arazoak bistaratu.

Kanpaina horiei esker, toki-gobernua (zinegotzi emakumeen bitartez), beste toki-erakunde batzuk (gobernadoreak, bake-epaileak), erakundeak (ikastetxeak, polizia nazionala, osasun-sektorea), antolakuntzak eta buruzagiak, batik bat emakumeak, modu aktiboan nahastea lortu zen. Horrela, buruzagi emakumeek



Nekazari familia batek hazitako cuye (Old Port Films)



Bozketa komunitate bilkura batean (Old Port Films)

botere-hartze nabarmena lortu zuten eta emakume-erakunde berriak sustatu zituzten barrutian.

Martxan jarritako bigarren ekintza bat **buruzagi-eskola** martxan jartzea izan zen. Eskolan irakatsi beharreko edukiak definitzeko kontuan izan ziren aurretik egindako premia-diagnostikoan lortutako emaitzak. Eskolako lehen promoziorako 97 lagun hautatu ziren (% 57 emakumeak eta % 43 gizonezkoak), eta beste batzuen artean, honako gai hauek jorratu ziren: identitatea, garapen pertsonala eta aldaketa sozialerako komunikazioa.

Gero, gaitze horiek beste gune batzuetara zabaldu ziren, esaterako, komunitateko batzarretara, erakunde bileretara eta ikastetxeetako guraso-bileretara, eta honako gai hauek jorratu ziren: autoestimua, giza balioak eta eskubideak. Oro har, gaitzeek ondo funtzionatu zuten hiru gune horietan. Dena den, nabarmenezkoa da ikastetxeek erakutsi zuten interesa, batetik, gaitze horiekin jarraitzea eskatu zutelako eta, bestetik, aitek eta amek parte hartzen dutelako.

Honako arlo hauetan ere egin ziren gaitzeak: autoestimua eta giza balioak eta eskubideak, espezifikoki emakumeekin. Horren harira, emakume gehiagok parte hartzea lortzeko arazoak izan ziren, beraz, sentibilizatzeko-lanean jarraitu beharra dago. Parte hartu zuten emakumeek modu positiboan balioetsi zuten gaitzeen metodologia, bere sinpletasuna, dinamismoa eta ikus-entzunezko baliabideen eta jolas-baliabideen erabilera nabarmenduz. Oratoria gehiago praktikatzeko eta mikrofona gehiago erabiltzeko eskaera egin zen, komunitateko bilera eta batzarretan parte hartzeko gehiago prestatuta egon daitezen.

Abian jarritako beste lan-ildo bat gizon eta emakumei, banaka eta kolektiboki, euren eskubideak (familia-indarkeria kasuetan salaketak erregistratu, komunitateko batzarretan eta oinarrizko bileretan parte hartu, etab.) erabiltzen eta buruzagiei proposamenak (hezkuntza-zerbitzuen hobekuntza, saneamendu-zerbitzuaren hobekuntza, toki-mailan genero-kuota betetzea, etab.) aurkeztzen **laguntzea** izan zen.



Haurrak jolasean kalean (Old Port Films)

Lidargo-ahalmenak sendotzen laguntzeko, bi barrutietako **buruzagien topaketa** bat egin zen, elkarriketarako eta esperientziak trukatzeko gune bat sortzeko helburuarekin. Topaketara 69 pertsona joan ziren (% 51 emakumeak eta % 49 gizonezkoak) eta gizon eta emakumeen antolaketa- eta partaidetza-maila ona ikusi zen. Euren komunitateak igarotzen ari diren egungo egoera aztertzeko ahalmen handia erakutsi zuten eta komunitatearen eta erakundearen kudeaketa hobetzeko proposamenak planteatu zituzten.

Bestalde, ikaskuntza teorikoak osatzeko xedez, buruzagiek **pasantiak** egin zituzten herrialdeko beste probintzia eta eskualde batzuetan izandako **lidargo-esperientzia arrakastatsuak ezagutzeko**. Horrek aukera eman zien, adibidez, artisau-lanak egin eta salduta,

euren erakundeari iraunkortasuna eta jarraipena ematea lortzen zuen emakume-erakunde baten esperientzia ezagutzeko. Eta baita komunitateko landa-turismoan oinarritutako ekonomia garatzeko proposamen bat ezagutzeko ere, erakunde publiko eta pribatuek sustatutakoa. Esperientzia arrakastatsu horiek euren komunitatean eta barrutian errepikatzea da xedea.

4. osagai horretan egindako lanarekin, honako emaitza hauek lortu dira:

- Gizon eta emakumeek ezagutzen dituzte herritar gisa dituzten eskubideak eta aitortzen dute horiek erabiltzeak duen garrantzia.
- Buruzagiek gaitasuna dute euren komunitatea zuzentzeko eta udal-kudeaketa publikoan eragiteko.